

Banaketa eta komunikazio kanalak

Gure enpresak ez du dendarik izango, baina produktuak salduko ditu (KAMELUren kamisetak). Ekoizpenaren ondasunak lortzeko hornitzaileen banaketa-kanala erabiliko dugu, gure produktuak saltzaileei bidaltzeko banaketa furgoneta bat behar izango dugu (hau izango da gure banaketa-kanala) eta azkenik, salmenta-kanala gure web guneko orrialde bat izango da.

Gure enpresa web gune bat izango da, eta horren ondorioz, jendeak gurekin kontaktuan jartzeko kanal bakarra internetan izango da. Bezeroekin harremanetan jartzeko, web guneaz gain sare sozialak erabiltzea erabaki dugu, oso zaila izango litzakelako jende askok gure web gunea ahoz aho ezagunarazten sailatzea, publizitate edo promoziorik egin gabe.

Sare sozialetan askori jarraitzen sailatuko gara, eta aldi berean, jende askok guri jarraitzea, hau, ahalik eta pertsona gehienei iristeko eta gure marka ezagutarazteko. Ondorengo modoa erabiliko ditugu sare sozial desberdinak:

- Instagram eta Facebooken, egiten ditugun ekintzen ordua eta lekua zehazten dituzten kartelen argazkiak konpartitzeaz gain, egindako proiektuen argazkiak eta bideoak igotzea ere pentsatu dugu. Adibidez Zarautzeko hondartza garbitzearen kasuan: hondartza zikina, jendeak nola garbitzen duen, nola gelditu den hondartza, bildu dugun zaborra, ...
- Twitteren, Instagramen eta Facebooken antzera, egiten ditugun ekintzen abisuak twitteatuko ditugu, hau

Sare sozialekin amaitzeko, gure pentsamodua gure ingurumena hobetzea denez, gure "lehiakide"-kin harremanetan jartzen sailatuko gara, hau da, beraien proiektuei bihotzak ematen, "retwitt" ak egiten, interesgarriak iruditzen zaizkigun beraien ekintzak publikatzen, ...

Hori egitez, beste ekintzak bultzatzeaz gain, inguru hauetan ezagunagoak egiteko aukera dugu.

Amaitzeko, patrozinatzaileak lortzea pentsatu dugu. Patrozinatzaileak erabiliz diru-laguntza bat jasotzeaz gain, bezeroak lortzeko hauen izena edo ospea erabili dezakegu